

# UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBAK

## OREKA KIMIKOA

1. (98 Ekaina) 100 litroko ontzi itxi batean, 2 mol hidrogeno eta 4 mol iodo sartzen dira, eta 400°C-raino berotzen dira. Tenperatura horretan eta  $H_2 + I_2 = 2 HI$  orekarako  $K_c=55$  dela jakinik:

a) Ontzian egongo den espezie bakoitzaren mol-kupurua determinatu.

b) Kanpo-presioa 1 atmosfera da. Ontzia irekitzen bada, airea sartuko al da, ala gasak aterako al dira? azaldu.

a) Erreakzioa:  $I_2(g) + H_2(g) \rightleftharpoons 2HI(g)$

Hasierako molak	4	2	0
Orekarako molak	-x	-x	+2x
Orekako molak	4-x	2-x	2x
Orekako kontzentrazioak	(4-x)/100	(2-x)/100	2x/100

Oreka-konstantea erabiliko dut x askatzeko,

$$\text{Oreka-konstantea } K_c = \frac{[HI]^2}{[I_2][H_2]} = \frac{(2x/100)^2}{((4-x)/100) \cdot ((2-x)/100)} = 55$$

X askatuz bi emaitzak: 1,88 eta 4,6 . Lehenengoa izango da posible. Bigarrena ezinezkoa da dagoen mol kopurua baino handiagoa delako. Beraz,  $x = 1,88$

Orekako molak:

$$I_2 \quad 4 - x = 4 - 1,88 = 2,12 \text{ mol}$$

$$H_2 \quad 2 - x = 2 - 1,88 = 0,12 \text{ mol}$$

$$2HI \quad 2x = 2 \cdot 1,88 = 3,76 \text{ mol}$$

b) Ontziaren presioa kalkulatu dugu. Gas idealen ekuazioa erabiliz,  $PV = nRT$

$$\text{Mol kopuru totala: } 2,12 + 0,12 + 3,76 = 6 \text{ mol}$$

$$P \cdot 100 \text{ L} = 6 \text{ mol} \cdot 0,082 \text{ atm} \cdot \text{L/mol} \cdot \text{K} \cdot (400+273)\text{K}$$

$$\text{Eta presioa askatuz, } P = 3,31 \text{ atm}$$

Ontziaren presioa kanpokoa baino handiagoa da; beraz, zabaldu ondoren gasak urtengo dira kanpora.

2. **(98 Uztaila)** 1 litroko ontzi batean 6 g fosforo pentakloruro solido jartzen dira. Hutsa egin eta gero, 250°C-ra berotzen da, horrela PCl<sub>5</sub>-a gas-egoerara pasatzen da, eta partzialki fosforo triklorurotan eta klorotan disoziatzen da, ontziaren presioa 2,08 atmosferaino igotzen delarik. Baldintza horietan, kalkulatu:

a) Fosforo pentakloruroaren disoziazio-gradua.

b) K<sub>p</sub>-aren balioa.

**Datuak:** Masa atomikoak: P=31,0 ; Cl=35,5

a) hasierako molak,  $6 \text{ g PCl}_5 \cdot (1 \text{ mol PCl}_5 / 208,5 \text{ g PCl}_5) = 0,0288 \text{ mol PCl}_5 /$

Erreakzioa:  $\text{PCl}_5 (\text{g}) \rightleftharpoons \text{PCl}_3 (\text{g}) + \text{Cl}_2 (\text{g})$

Hasierako molak	0,0288	0	0
Orekarako molak	-x	+x	+x
Orekako molak	0,0288-x	+x	+x
Orekako kontzentrazioak	(0,0288-x)/1	(x)/1	x/1

X lortzeko gas idealen ekuazioa erabiliko dut sistema osoari aplikatuz,

$$PV = nRT \rightarrow 2,08 \text{ atm} \cdot 1 \text{ L} = n \cdot 0,082 \text{ atm} \cdot \text{L/mol} \cdot \text{K} \cdot (250+273)\text{K}$$

Eta n askatuz, 0,0485 mol

$$\text{Mol kopuru totala} = 0,0288 - x + x + x = 0,0288 + x = 0,0485 \text{ mol}$$

Eta hemendik,  $x = 0,02 \text{ mol}$

$$\text{Disoziazio-gradua} = \text{disoziatutako PCl}_5 \text{ ren molak} / \text{hasierako molak} = x / 0,0288 = 0,02 / 0,0288 = 0,694 = \% 69,4$$

b) Oreka-konstantean ordezkaturako ditugu datuak ,


$$\text{Oreka-konstantea } K_c = \frac{[\text{PCl}_3][\text{Cl}_2]}{[\text{PCl}_5]} = \frac{((0,02)/1) \cdot (0,02/1)}{((0,0288 - 0,02)/1)} = 0,04545 \text{ mol/L}$$

$$\text{Eta } K_p = K_c (RT)^{\Delta n} = 0,04545 \cdot (0,082 \cdot (250+273))^1 = 1,95 \text{ atm}$$

3. **(99 Ekaina)** 10 litroko ontzi batean, 1 mol nitrogeno eta 2 mol hidrogeno sartzen dira, eta 618 K-eraino berotzen dira. Behin ondoko oreka hau lortu eta gero,  $\text{N}_2 (\text{g}) + 3 \text{H}_2 (\text{g}) \rightleftharpoons 2 \text{NH}_3 (\text{g})$ , nahaste bat lortzen da, eta honek eragindako presia 9,48 atm-koa da.

a) Determinatu orekako nahastearen konposizioa.

b) Kalkulatu K<sub>c</sub> eta K<sub>p</sub> konstanteen balioak.



$$n_T = (1 - x) + (2 - 3x) + 2x = 3 \text{ mol} - 2x$$

$$n_T = \frac{pV}{RT} = 1,87 \text{ mol} = 3 \text{ mol} - 2x \rightarrow x = 0,565$$

$$n(\text{NH}_3) = 2x = 1,13 \text{ mol}; n(\text{H}_2) = 2 - 3x = 0,305 \text{ mol}; n(\text{N}_2) = 1 - x = 0,435 \text{ mol}$$

$$K_c = \frac{[\text{NH}_3]^2}{[\text{N}_2][\text{H}_2]^3} = \frac{(1,13 \text{ mol}/10 \text{ L})^2}{(0,435 \text{ mol}/10 \text{ L})(0,305 \text{ mol}/10 \text{ L})^3} = 10346$$

$$K_p = \frac{K_c}{(RT)^2} = 4,03$$

4. (99 Uztaila) 10 litroko ontzi batean, 2 mol hidrogeno eta 2 mol karbono dioxido nahasten dira, 550°C-tako tenperaturan ondoko oreka lortzen delarik:  $\text{CO}_2(\text{g}) + \text{H}_2(\text{g}) \rightleftharpoons \text{H}_2\text{O}(\text{g}) + \text{CO}(\text{g})$   
Orekan 0,54 mol ur eta 0,54 mol karbono monoxido daudela baieztatzen da. Determinatu:

- a) Oreka presio totala.
- b)  $K_c$  eta  $K_p$  konstanteen balioak.

#### OREKAKO PRESIO TOTALA

Ekuazio kimikoaren estekiometria kontutan harturik (guztiak gasak eta errektiboen eta produktuen mol-kopuru berdinak direnez) hasieran 4 mol izanik (2 mol hidrogeno eta bi mol karbono dioxido), orekan ere 4 mol izango dira: 2-x mol hidrogeno, 2-x mol karbono dioxido, x mol ur eta x mol karbono monoxido (x=0,54 mol izango da).

4 mol izanik, presio totala:

$$p_T = \frac{n_T \cdot R \cdot T}{V} = \frac{4 \text{ mol} \cdot 0,082 \text{ atm} \cdot \text{L}/\text{K} \cdot \text{mol} \cdot (550 + 273) \text{ K}}{10 \text{ L}} = 27 \text{ atm}$$

#### OREKA-KONSTANTEAK

Bi oreka-konstanteak berdinak dira gasen mol-kopuruak handitzen ez direlako:

$$K_p = K_c \cdot (RT)^{\Delta n} = K_c = \frac{[\text{H}_2\text{O}][\text{CO}]}{[\text{CO}_2][\text{H}_2]} = \frac{\left(\frac{0,54 \text{ mol}}{10 \text{ L}}\right)^2}{\left(\frac{2 \text{ mol} - 0,54 \text{ mol}}{10 \text{ L}}\right)^2} = 0,137$$

5. (00 Ekaina) Ozonoa eta oxigenoa 1127°C-tan daude, ontzi itxi batean eta 18,1 atm-ko presiopean, ondoko oreka eratuz  $2 \text{ O}_3(\text{g}) \rightleftharpoons 3 \text{ O}_2(\text{g})$ , ozonoaren disoziazio-gradua 0,97 izanik.
- a) Determinatu  $K_p$ -aren balioa.
  - b) Ontzia berotzerakoan, oreka desplazatu egiten dela behatzen da, ozonoaren kontzentrazioa gehituz eta oxigenoarena gutxituz. Azaldu  $2 \text{ O}_3(\text{g}) \rightleftharpoons 3 \text{ O}_2(\text{g})$  delako prosezua exotermikoa ala endotermikoa den.

Disoziazio-gradua eta presio totala jakinik, presio partzialak eta K<sub>p</sub> kalkulatuko dugu.

	O <sub>3</sub> (g)	O <sub>2</sub> (g)
Hasieran	n	0
Aldaketak	-n.α	3.n.α / 2
Oreka	n (1-α) = 0,03.n	1,455 . n
Orekako mol-kopuru totala	n <sub>T</sub> = n (1-α) + 3.n.α / 2 = n (1+α/2) = n . 1,485	
Frakzio molarrak	x = 0,03 / 1,485 = 0,02	x = 1,455 / 1,485 = 0,98
Presio partzialak	p = 0,02.18,1 atm = 0,362 atm	p = 0,98.18,1 atm = 17,738 atm


$$K_p = \frac{p_{O_2}^3}{p_{O_3}^2} = \frac{(17,738 \text{ atm})^3}{(0,362 \text{ atm})^2} = 42603 \text{ atm}$$

Ontzia berotzerakoan oreka alde endotermikoa doa eta hori ozonoaren aldekoa da. Prozesua, oxigenoaren formakuntza, exotermikoa da beraz.

6. (00 Uztaila)  $\text{CO}_2(\text{g}) + \text{H}_2(\text{g}) \rightleftharpoons \text{H}_2\text{O}(\text{g}) + \text{CO}(\text{g})$  orekarentzat, K<sub>c</sub> konstantea = 0,15 da, 700 K-etan. 5 litroko matrize batean, 0,50 mol CO<sub>2</sub> eta 0,50 mol H<sub>2</sub> sartzen dira, eta 700 K-etaraino berotzen dira.

Determinatu:

- Substantzia bakoitzaren mol-kopurua, oreka lortzen denean.
- Matrizearen barruko presio totala.



$$n(\text{CO}_2) = n(\text{H}_2) = 5\text{L} \cdot 0,1\text{M}(1 - 0,28) = 0,36 \text{ mol}$$


$$n(\text{CO}) = n(\text{H}_2\text{O}) = 5\text{L} \cdot 0,1\text{M} \cdot 0,28 = 0,14 \text{ mol}$$

$$p_T = \frac{n_T \cdot R \cdot T}{V} = \frac{1 \text{ mol} \cdot 0,082 \text{ atm} \cdot \text{L} / \text{K} \cdot \text{mol} \cdot 700\text{K}}{5 \text{ L}} = 11,48 \text{ atm}$$

7. (01 Ekaina) 20 litroko ontzi batean 2 mol hidrogeno eta 2 mol iodo sartzen dira eta nahaste hori 763 K-eraino berotzen da. Behin  $\text{H}_2(\text{g}) + \text{I}_2(\text{g}) \rightleftharpoons 2 \text{HI}(\text{g})$  oreka lortu eta gero, 3 mol hidrogeno ioduro eratu direla behatzen da.


- Aipaturiko oreka horrentzat, K<sub>c</sub> konstantearen balioa kalkulatu.
- Bolumena eta tenperatura konstante mantenduz, orekako hahasteari 0,5 mol hidrogeno gehitzen zaizkio. Azaldu zer gertatuko den, eta oreka birlortu eta gero nahastearen komposizio berria kalkulatu.

a) Aipaturiko oreka horrentzat, Kc konstantearen balioa kalkulatu



b) Bolumena eta tenperatura konstante mantenduz, orekako nahasteari 0,5 mol hidrogeno gehitzen zaizkio. Azaldu zer gertatuko den, eta, oreka birrlortu eta gero, nahastearen konposizio berria kalkulatu

Hidrogeno gehitzean, oreka apurtuko egingo da eta sistemak joko du hidrogeno ioduro gehiago sortuz (Le Chatelier)



8. **(01 Uztaila)** 5,0 litroko matrize batean 2 mol fosforo pentakloruro eta 1 mol fosforo trikloruro sartzen dira. Tenperatura 250°C-raino igotzen da eta ondoko oreka eratzten da:



a) Substantzia bakoitzaren mol-kopurua, orekan, kalkulatu.

b) Esperientzia horretan, PCl<sub>5</sub>-aren disoziazio-gradua determinatu

a) Erreakzioa:  $\text{PCl}_5(\text{g}) \rightleftharpoons \text{PCl}_3(\text{g}) + \text{Cl}_2(\text{g})$

Hasierako molak	2	1	0
Orekarako molak	-x	+x	+x
Orekako molak	2-x	1+x	+x
Orekako kontzentrazioak	(2-x)/5	(1+x)/5	x/5

Oreka-konstantean ordezkaturako ditugu datuak x askatzeko,

$$\text{Oreka-konstantea } K_c = \frac{[\text{PCl}_3][\text{Cl}_2]}{[\text{PCl}_5]} = \frac{((1+x)/5) \cdot (x/5)}{(2-x)/5} = 0,042$$

Eta hortik,  $x = 0,28$

Orekako mol kopuruak:

$$\text{PCl}_5 = 2 - x = 1,72 \text{ mol}$$

$$\text{PCl}_3 = 1 + x = 1,28 \text{ mol}$$

$$\text{Cl}_2 = x = 0,28 \text{ mol}$$

b) Disoziazio-gradua = disoziatutako  $\text{PCl}_5$  ren molak / hasierako molak =  
 $x / 2 = 0,28 / 2 = 0,14 = \%14$

9. (02 Ekaina) 10 litroko matraxe batean, hutsa egin eta gero, 0,4 mol hidrogeno eta 0,8 mol iodo sartzen dira, eta 600°C-raino berotzen da. Temperatura horretan eta ondoko prozesuarentzat,

$\text{H}_2(\text{g}) + \text{I}_2(\text{g}) \rightleftharpoons 2\text{HI}(\text{g})$  oreka konstantea  $K_c = 50$  da. Kalkulatu:

a) Substantzia bakoitzaren mol-kopurua, oreka 600°C-tan lortu eta gero.

b) Matraxe barruko presio totala.

a) Erreakzioa:  $\text{I}_2(\text{g}) + \text{H}_2(\text{g}) \rightleftharpoons 2\text{HI}(\text{g})$

Hasierako molak	0,8	0,4	0
Orekarako molak	-x	-x	+2x
Orekako molak	0,8-x	0,4-x	2x
Orekako kontzentrazioak	(0,8-x)/10	(0,4-x)/10	2x/10

Oreka-konstantea erabiliko dut x askatzeko,

$$\text{Oreka-konstantea } K_c = \frac{[\text{HI}]^2}{[\text{I}_2][\text{H}_2]} = \frac{(2x/10)^2}{((0,8-x)/10) \cdot ((0,4-x)/10)} = 50$$

X askatuz bi emaitzak: 0,37 eta 0,93. Lehenengoa izango da posible. Bigarrena ezinezkoa da dagoen mol kopurua baino handiagoa delako. Beraz,  $x = 0,37$

Orekako molak:

$$\text{I}_2 \quad 0,8 - x = 0,8 - 0,37 = 0,43 \text{ mol}$$

$$\text{H}_2 \quad 0,4 - x = 0,4 - 0,37 = 0,03 \text{ mol}$$

$$2\text{HI} \quad 2x = 2 \cdot 0,37 = 0,74 \text{ mol}$$

b) Presio totala kalkulatzeko gas idealen ekuazioa erabiliz,  $PV = nRT$

$$\text{Mol kopuru totala: } 0,43 + 0,03 + 0,74 = 1,2 \text{ mol}$$

$$P \cdot 10 \text{ L} = 1,2 \text{ mol} \cdot 0,082 \text{ atm} \cdot \text{L/mol} \cdot \text{K} \cdot (600+273)\text{K}$$

$$\text{Eta presioa askatuz, } P = 8,59 \text{ atm}$$

10. (02 Uztaila) 10 litroko ontzi batean 0,53 mol nitrogeno eta 0,49 mol hidrogeno sartzen dira. Nahastea 527°C-raino berotzen da, ondoko oreka lortzen delarik:  $N_2(g) + 3 H_2(g) \rightleftharpoons 2 NH_3(g)$  Eta 0,06 mol amoniako eratu direla behatzen da.

a) Oreka-konstantearen,  $K_c$ , balioa determinatu.

b) Nahaste gaseosoak orekan eragiten duen presioa kalkulatu.

a) Erreakzioa:  $N_2(g) + 3 H_2(g) \rightleftharpoons 2 NH_3(g)$

Hasierako molak	0,53	0,49	0
Orekarako molak	-x	-3x	+2x
Orekako molak	0,53-x	0,49-3x	2x
Orekako kontzentrazioak	(0,53-x)/10	(0,49-3x)/10	2x/10

Orekan 0,06 mol amoniako eratu direla dio problemak; beraz,  $2x = 0,06 \rightarrow x = 0,03$  mol

Orekako kontzentrazioak:

$$[N_2] = (0,53-x)/10 = (0,53-0,03)/10 = 0,05 \text{ M}$$

$$[H_2] = (0,49-3x)/10 = (0,49-3 \cdot 0,03)/10 = 0,04 \text{ M}$$

$$[NH_3] = 2x/10 = 0,06/10 = 0,006 \text{ M}$$

eta oreka-konstantean datuak ordezkatuak ditut.

$$\text{Oreka-konstantea } K_c = \frac{[NH_3]^2}{[N_2][H_2]^3} = \frac{(0,006)^2}{(0,05) \cdot (0,04)^3} = 11,25 (\text{mol/L})^{-2}$$

b) Sistema osoarentzat gas perfektuen ekuazioa erabiliko dut,

$$PV = nRT$$

$$\text{Mol kopuru totala} = N_2\text{-ren molak} + H_2\text{-ren molak} + NH_3\text{-ren molak} =$$

$$(0,53-0,03) + (0,49-3 \cdot 0,03) + 0,06 = 0,96 \text{ mol}$$


eta ekuazioan,

$$P \cdot 10 \text{ L} = 0,96 \text{ mol} \cdot 0,082 \text{ atm} \cdot \text{L/mol} \cdot \text{K} \cdot (527+273)\text{K}$$

Eta presioa askatuz,  $P = 6,3 \text{ atm}$



11. (03 Ekaina) 10 litroko ontzi batean nahaste bat sartzen da, 4 mol nitrogenoz eta 12 mol hidrogenoz osatua. Temperatura 1000 K-etaraino igotzen da, ondoko oreka lortzen delarik:



a) Kalkulatu  $K_c$ -ren balioa temperatura horretan.

b) Determinatu orekako sistemaren presio totalaren balioa.

a) Erreakzioa:  $\text{N}_2(\text{g}) + 3 \text{H}_2(\text{g}) \rightleftharpoons 2 \text{NH}_3(\text{g})$

Hasierako molak	4	12	0
Orekarako molak	-x	-3x	+2x
Orekako molak	4-x	12-3x	2x
Orekako kontzentrazioak	(4-x)/10	(12-3x)/10	2x/10

Orekan 0,92 mol amoniako eratu direla dio problemak; beraz,  $2x = 0,92 \rightarrow x = 0,46$  mol

Orekako kontzentrazioak:

$$[\text{N}_2] = (4-x)/10 = (4-0,46)/10 = 0,354 \text{ M}$$

$$[\text{H}_2] = (12-x)/10 = (12-3 \cdot 0,46)/10 = 1,062 \text{ M}$$

$$[\text{NH}_3] = 2x/10 = 0,92/10 = 0,092 \text{ M}$$

eta oreka-konstantean datuak ordezkatzeko ditut.

$$\text{Oreka-konstantea } K_c = \frac{[\text{NH}_3]^2}{[\text{N}_2][\text{H}_2]^3} = \frac{(0,092)^2}{(0,354) \cdot (1,062)^3} = 0,02 (\text{mol/L})^{-2}$$

b) Sistema osoarentzat gas perfektuen ekuazioa erabiliko dut,

$$PV = nRT$$

$$\text{Mol kopuru totala} = \text{N}_2\text{-ren molak} + \text{H}_2\text{-ren molak} + \text{NH}_3\text{-ren molak} =$$

$$(4-0,46) + (12-3 \cdot 0,46) + 0,92 = 15,08 \text{ mol}$$

eta ekuazioan,

$$P \cdot 10 \text{ L} = 15,08 \text{ mol} \cdot 0,082 \text{ atm} \cdot \text{L/mol} \cdot \text{K} \cdot 1000 \text{ K}$$

Eta presioa askatuz,  $P = 123,66 \text{ atm}$

12. (03 Uztaila) 5 litroko ontzi batean 1 mol SO<sub>2</sub> eta 1 mol O<sub>2</sub> sartzen dira. Aipatutako ontzia 727°C-raino berotzen da, eta ondoko erreakzioa gertatzen da: 2 SO<sub>2</sub> (g) + O<sub>2</sub> (g) ⇌ 2 SO<sub>3</sub> (g) Behin oreka lortu eta gero, nahastea analizatu egiten da, eta 0,15 mol SO<sub>2</sub> daudela aurkitzen da. Kalkulatu:

- SO<sub>3</sub>-aren kontzentrazioa orekan.
- K<sub>p</sub> konstantearen balioa 727°C-tan.

Erreakzioa:	2 SO <sub>2</sub> (g) + O <sub>2</sub> (g) ⇌ 2 SO <sub>3</sub> (g)		
Hasierako molak	1	1	0
Orekarako molak	-2x	-x	+2x
Oreako molak	1-2x	1-x	2x
Oreako kontzentrazioak	(1-2x)/5	(1-x)/5	2x/5

Problema dio orekan 0,15 mol SO<sub>2</sub> daudela. Hauxe da, 1-2x = 0,15 eta x = 0,425 mol

Oreako kontzentrazioak: [SO<sub>2</sub>] = (1-2x)/5 = 0,03 M  
 [O<sub>2</sub>] = (1-x)/5 = 0,115 M  
 [SO<sub>3</sub>] = 2x/5 = 0,17 M

$$\text{Oreka-konstantea, } K_c = \frac{[\text{SO}_3]^2}{[\text{SO}_2]^2 [\text{O}_2]} = \frac{0,17^2}{0,03^2 \cdot 0,115} = 279,23 (\text{mol/l})^{-1}$$


$$\text{Eta } K_p = K_c \cdot (RT)^{\Delta n} = 279,23 \cdot (0,082 \cdot (727+273))^{-1} = 3,41 \text{ atm}^{-1}$$

13. (04 Ekaina) Demagun ondoko oreka: CO<sub>2</sub> (g) + H<sub>2</sub> (g) ⇌ O (g) + H<sub>2</sub>O (g). Oreka horren konstantea, K<sub>c</sub> = 1,50 da, 1500 K-etan. 2 litroko matraze batean, 0,20 mol CO<sub>2</sub> eta 0,20 mol H<sub>2</sub> sartzen dira, eta 1500 K-eraino berotzen da. determinatu:

- Substantzia bakoitzaren mol-kopurua oreka lortu eta gero.
- Matrazearen barruan egongo den presio totala.

### Substantzia bakoitzaren mol-kopurua, behin oreka lortu eta gero

Lehenengoz, ekuazio kimikoa, mol-kopuruen taula (hasieran, aldaketak eta orekan) eta oreka-konstantearen espresioak zehaztuko ditugu.



$$K_c = \frac{[\text{CO}] [\text{H}_2\text{O}]}{[\text{CO}_2] [\text{H}_2]} = 1,5$$

Ondoren, orekako kontzentrazioak (taulan dauden balioak mol-kopuruak dira; kontzentrazioak lortzeko  $n/V$  egin behar da, non bolumena  $V=2 \text{ L}$  da) sartuko ditugu oreka konstantearen espresioan.

$$K_c = \frac{[\text{CO}] [\text{H}_2\text{O}]}{[\text{CO}_2] [\text{H}_2]} = 1,5 = \frac{\frac{x}{2\text{L}} \cdot \frac{x}{2\text{L}}}{\frac{0,2 \text{ mol} - x}{2\text{L}} \cdot \frac{0,2 \text{ mol} - x}{2\text{L}}} = \frac{x^2}{(0,2 \text{ mol} - x)^2}$$

Jarraian,  $x$ -en balioa kalkulatu dugu eta orekako mol-kopuruak zehaztu.

$$K_c = \frac{[\text{CO}] [\text{H}_2\text{O}]}{[\text{CO}_2] [\text{H}_2]} = 1,5 = \frac{x^2}{(0,2 \text{ mol} - x)^2} \rightarrow \sqrt{1,5} = \sqrt{\frac{x^2}{(0,2 \text{ mol} - x)^2}}$$

$$1,225 = \frac{x}{0,2 \text{ mol} - x} \rightarrow 1,225 (0,2 \text{ mol} - x) = x \rightarrow$$

$$0,245 \text{ mol} - 1,225 x = x \rightarrow 0,245 \text{ mol} = 2,225 x \rightarrow$$

$$x = \frac{0,245 \text{ mol}}{2,225} = 0,11 \text{ mol}$$

OREKAN:  
 $n(\text{CO}) = n(\text{H}_2\text{O}) = 0,11 \text{ mol}$   
 $n(\text{CO}_2) = n(\text{H}_2) = 0,2 \text{ mol} - x = 0,09 \text{ mol}$

Azpitarratzekoa da ontzian beti  $0,4 \text{ mol}$  daudela beti (hasieran, nahiz prozesua ematen den bitartean, nahiz bukaeran) zeren ekuazio kimikoan agertzen diren erreaktiboen mol-kopurua ( $n_{\text{err}}=2$ ) eta produktuen mol-kopurua ( $n_{\text{prod}}=2$ ) berdina da ( $\Delta n=0$ ).

### Matrazearen barruan egongo den presio totala

Presio totala kalkulatzeko, gasen ekuazio orokorra erabiliko dugu.

$$p = \frac{n \cdot R \cdot T}{V} = \frac{0,4 \text{ mol} \cdot 0,082 \frac{\text{atm} \cdot \text{L}}{\text{K} \cdot \text{mol}} \cdot 1500 \text{ K}}{2 \text{ L}} = 24,6 \text{ atm}$$

14. (04 Uztaila) 8 litroko ontzi batean 0,58 mol  $\text{CO}_2$  eta 0,31 mol  $\text{H}_2$  sartzen dira,  $1250^\circ\text{C}$ -raino berotzen dira, eta ondoko oreka eratzen da:  $\text{CO}_2(\text{g}) + \text{H}_2(\text{g}) \rightleftharpoons \text{CO}(\text{g}) + \text{H}_2\text{O}(\text{g})$ . Orekako nahastearen analisisian 0,36 mol  $\text{CO}_2$  daudela ikusten da.

a) Kalkulatu orekan dauden beste substantzien mol-kopuruak.

b) Determinatu  $K_c$  eta  $K_p$  tenperatura horretan.

Erreakzioa,  $\text{CO}_2(\text{g}) + \text{H}_2(\text{g}) \rightleftharpoons \text{CO}(\text{g}) + \text{H}_2\text{O}(\text{g})$

Hasierako molak	0,58	0,31	0	0
Orekarako molak	-x	-x	+x	+x
Orekako molak	0,58-x	0,31-x	+x	+x
Orekako kontzentrazioak	0,58-x / 8	0,31-x / 8	x/8	x/8

Orekan 0,36 mol  $\text{CO}_2$  daude; hortaz,  $0,58-x = 0,36 \rightarrow x = 0,22$  mol

Orekako substantzien mol kopuruak,

$\text{CO}_2 \rightarrow 0,36$  mol

$\text{H}_2 \rightarrow 0,31-x = 0,31-0,22 = 0,09$  mol

$\text{CO}$  eta  $\text{H}_2\text{O}$  berdinak  $\rightarrow 0,22$  mol


Oreka-konstantea  $K_c = \frac{[\text{CO}][\text{H}_2\text{O}]}{[\text{CO}_2][\text{H}_2]} = \frac{((0,22/8) \cdot (0,22/8))}{((0,36/8) \cdot (0,09/8))} = 1,49$

Eta  $K_p = K_c \cdot (RT)^{\Delta n} = 1,49 \cdot (0,082 \cdot (1250+273))^0 = K_c = 1,49$

Gasen mol kopuru aldaketa nulua denez  $K_c$  eta  $K_p$  berdinak dira.

15. (05 Ekaina) Amoniakoa, industrian, nitrogenotik eta hidrogenotik abiatuta lortzen da. Ontzi batean 1,0 mol  $N_2$  eta 3,2 mol  $H_2$  sartzen dira, temperatura jakin bateraino berotzen da, eta behatu egiten da nola oreka lortzen denean, guztira 3,8 mol daudela, bai produktuak eta bai erreaktiboak kontuan hartuta.
- Kalkulatu gas bakoitzaren mol-kopurua orekan.
  - Ontzia 10 litrokoa bada, kalkulatu  $K_c$ -ren balioa temperatura horretan.

### 1. Orekako mol-kopuruen kalkulua



Hasieran	3,2 mol	1 mol	---
Kontsumitu / sortu	-3x	-x	2x
<b>Amaieran</b>	<b>3,2 - 3x</b>	<b>1 - x</b>	<b>2x</b>

$$(3,2 - 3x) + (1 - x) + 2x = 3,8$$

$$4,2 - 2x = 3,8 \Rightarrow x = \frac{4,2 - 3,8}{2} = 0,2$$

OREKAN:

$$n(H_2) = 3,2 - 3x = 2,6 \text{ mol}$$

$$n(N_2) = 1 - x = 0,8 \text{ mol}$$

$$n(NH_3) = 2x = 0,4 \text{ mol}$$

### 2. $K_c$ -ren kalkulua

Ontziaren bolumena 10 litrokoa denez, orekako kontzentrazioak eta oreka-konstantea hauek dira:


$$[H_2] = \frac{2,6 \text{ mol}}{10 \text{ L}} = 0,26 \text{ M}$$

$$[N_2] = \frac{0,8 \text{ mol}}{10 \text{ L}} = 0,08 \text{ M}$$

$$[NH_3] = \frac{0,4 \text{ mol}}{10 \text{ L}} = 0,04 \text{ M}$$

$$K_c = \frac{[NH_3]^2}{[N_2] [H_2]^3} = \frac{0,04^2}{0,08 \cdot 0,26^3} = 1,14$$

16. (05 Uztaila) Kloro gaseosoaren lorpenerako prozesu industrial batean ondoko orekara lortzen da:



Prozesu hau laborategian berregiteko, 10 litroko ontzi itxi batean (ontziari aurretik hutsa egin zaio), 3,65 g hidrogeno kloruro eta 3,2 g oxigeno sartzen dira. Nahastea 390°C-raino berotzen da, eta oreka lortu denean 2,13 g kloro lortu direla ikusten da. Kalkulatu:

a) Substantzia bakoitzaren kontzentrazioa orekan.


b)  $K_c$ -ren balioa tenperatura horretan.

**Datuak:** Masa atomikoak: H=1 ; O=16 ; Cl=35,5

$$[\text{HCl}]_0 = 3,65 \text{ g} \cdot (1 \text{ mol} / 36,5 \text{ g}) : 10 \text{ L} = 0,01 \text{ M}$$

$$[\text{O}_2]_0 = 3,2 \text{ g} \cdot (1 \text{ mol} / 32 \text{ g}) : 10 \text{ L} = 0,01 \text{ M}$$

$$[\text{Cl}_2] = 2,13 \text{ g} \cdot (1 \text{ mol} / 71 \text{ g}) : 10 \text{ L} = 0,003 \text{ M}$$



	HCl	O <sub>2</sub>	Cl <sub>2</sub>	H <sub>2</sub> O
Hasierako kontzentrazioa	0,01	0,01	0	0
Orekara heltzeko kontzentrazioa	-4x	-x	2x	2x
Orekako kontzentrazioak	0,01-4x	0,01-x	2x	2x

Orekako kloroaren kontzentrazioa,  $2x = 0,003 \text{ M}$  da eta hortik askatuko dugu  $x$ ,  
 $x = 0,0015$

Orekako kontzentrazioak,  $[\text{HCl}] = 0,01 - 4 \cdot 0,0015 = 0,004 \text{ M}$


$[\text{O}_2] = 0,01 - 0,0015 = 0,0085 \text{ M}$

$[\text{Cl}_2] = [\text{H}_2\text{O}] = 0,003 \text{ M}$

Oreka-konstantea,  $K_c = \frac{[\text{Cl}_2]^2 [\text{H}_2\text{O}]^2}{[\text{HCl}]^4 [\text{O}_2]}$  eta datuak ordezkaturaz,

$$K_c = \frac{[0,003]^2 [0,003]^2}{[0,004]^4 [0,0085]} = 37,22 (\text{mol} / \text{L})^{-1}$$

17. (06 Ekaina) 10,0 litroko ontzian 4,0 mol nitrogenoz eta 12,0 mol hidrogenoz osaturiko nahastea sartu da. Nahaste hori 1000 K-eraino berotu da eta honako oreka hau lortu da:



a)  $K_c$ -ren balioa kalkula ezazu

b)  $K_p$ -ren eta presio totalaren balioak kalkula itzazu

a) Erreakzioa:  $\text{N}_2(\text{g}) + 3 \text{H}_2(\text{g}) \rightleftharpoons 2 \text{NH}_3(\text{g})$

Hasierako molak	4	12	0
Orekarako molak	-x	-3x	+2x
Orekako molak	4-x	12-3x	2x
Orekako kontzentrazioak	(4-x)/10	(12-3x)/10	2x/10

Orekan 0,8 mol amoniako eratu direla dio problemak; beraz,  $2x = 0,8 \rightarrow x = 0,4$  mol

Orekako kontzentrazioak:

$$[\text{N}_2] = (4-x)/10 = (4-0,4)/10 = 0,36 \text{ M}$$

$$[\text{H}_2] = (12-x)/10 = (12-3 \cdot 0,4)/10 = 1,08 \text{ M}$$

$$[\text{NH}_3] = 2x/10 = 0,8/10 = 0,08 \text{ M}$$

eta oreka-konstantean datuak ordezkatu ditut.

$$\text{Oreka-konstantea } K_c = \frac{[\text{NH}_3]^2}{[\text{N}_2][\text{H}_2]^3} = \frac{(0,08)^2}{(0,36)(1,08)^3} = 0,014 (\text{mol/L})^{-2}$$

b) Sistema osoarentzat gas perfektuen ekuazioa erabiliko dut,

$$PV = nRT$$

Mol kopuru totala =  $\text{N}_2$ -ren molak +  $\text{H}_2$ -ren molak +  $\text{NH}_3$ -ren molak =

$$(4-0,4) + (12-3 \cdot 0,4) + 0,8 = 15,2 \text{ mol}$$

eta ekuazioan,

$$P \cdot 10 \text{ L} = 15,2 \text{ mol} \cdot 0,082 \text{ atm} \cdot \text{L/mol} \cdot \text{K} \cdot 1000 \text{ K}$$

Eta presioa askatuz,  $P = 124,64 \text{ atm}$

$$\text{Eta } K_p = K_c \cdot (RT)^{\Delta n} \rightarrow K_p = 0,014 \cdot (0,082 \cdot 1000)^{-2} = 2,1 \cdot 10^{-6} \text{ atm}^{-2}$$

18. (06 Uztaila) Oreka honetan  $\text{CO}_2(\text{g}) + \text{H}_2(\text{g}) \rightleftharpoons \text{CO}(\text{g}) + \text{H}_2\text{O}(\text{g})$  2000 K-etan  $K_c$  konstantea 4,40 da. Hutsik dagoen 4,68 litroko ontzian, 1,00 mol karbono dioxido eta 1,00 mol hidrogeno sartu dira eta 2000 K-eraino berotu da ontzia.

a) Zein izango da espezie bakoitzak orekan izango duen kontzentrazioa?

b) Oreka lortu ondoren, tenperatura konstantean bolumena erdira murriztu da.

Erreakzioa desplazatu egingo da oreka berreskuratzeko? Zein izango da espezien kontzentrazioa eta presio totala kasu honetan?

	$\text{H}_2(\text{g})$	$\text{CO}_2(\text{g})$	$\text{H}_2\text{O}(\text{g})$	$\text{CO}(\text{g})$
Hasierako molak	1	1	0	0
Orekara heltzeko	-x	-x	x	x
Orekako molak	1-x	1-x	x	x
Orekako kontzentrazioak	$1-x / 4,68$	$1-x / 4,68$	$x / 4,68$	$x / 4,68$

Datuak orka-konstantean ordezkatzuz,

$$\text{Oreka-konstantea, } K_c = \frac{[\text{CO}][\text{H}_2\text{O}]}{[\text{CO}_2][\text{H}_2]} = \frac{\left(\frac{x}{4,68}\right)\left(\frac{x}{4,68}\right)}{\left(\frac{1-x}{4,68}\right)\left(\frac{1-x}{4,68}\right)} = \frac{x^2}{(1-x)^2} = 4,40$$

$$\text{Alde bietan erro karratua aplikatuz, } \sqrt{\frac{x^2}{(1-x)^2}} = \sqrt{4,40} \Rightarrow \frac{x}{1-x} = 2,1 \Rightarrow x = 0,68$$

Orekako kontzentrazioak honako hauek izango dira,

$$[\text{H}_2(\text{g})] = [\text{CO}_2(\text{g})] = 1-x / 4,68 = 0,068 \text{ M}$$

$$[\text{H}_2\text{O}(\text{g})] = [\text{CO}(\text{g})] = x / 4,68 = 0,15 \text{ M}$$

Bolumenak ez dauka inolako eraginik orekan, alde bietan mol kopurua berdina delako.


Substantzien kontzentrazioakberdinak dira eta presio totala kalkulatzeko gas idealen ekuazioa erabiliko dugu,  $PV = nRT$  sistema osoari.

$$\text{Mol kopurua} = 1-x + 1-x + x + x = 2 \text{ mol}$$


$$P \cdot 4,68 \text{ L} = 2 \text{ mol} \cdot 0,082 \text{ atm}\cdot\text{L/mol}\cdot\text{K} \cdot 2000 \text{ K} \rightarrow P = 70,09 \text{ atm}$$



19. (07 Ekaina) Litro leko gas-nahasketa bat, hasiera batean 7,94 mol hidrogenok eta 5,30 mol iodok osatzen dutena, 445°C-an berotzen da eta 9,52 mol HI osatzen dira orekan erreazio honen arabera:



- a) Oreka-konstantearen balioa tenperatura horretan kalkula ezazu modu arrazoituan.  
 b) 4 mol hidrogeno gasetatik eta 2 mol iodo gasetatik abiatuz gero, zenbat mol hidrogeno ioduro izango litzateke orekan? Zure erantzunak arrazoitu.




Hasierako molak	5,3	7,94	0
Orekarako molak	-x	-x	+2x
Orekako molak	5,3-x	7,94-x	2x
Orekako kontzentrazioak	(5,3-x)/1	(7,94-x)/1	2x/1

Orekan 9,52 mol HI dago; 2x, hain zuzen ere. Hortik x askatuko dugu,

$$x = 9,52/2 = 4,76 \text{ mol}$$

$$\text{Oreka-konstantea } K_c = \frac{[HI]^2}{[I_2][H_2]} = \frac{(9,52/1)^2}{((5,3 - 4,76)/1) \cdot ((7,94 - 4,76)/1)} = 52,78$$

- b) Goiko taula bezalako bat egingo dugu oraingo datuekin.



Hasierako molak	2	4	0
Orekarako molak	-x	-x	+2x
Orekako molak	2-x	4-x	2x
Orekako kontzentrazioak	(2-x)/1	(4-x)/1	2x/1

Ezagutzen dugun oreka-konstantean datuak ordezkatu eta x askatu.


$$K_c = \frac{[HI]^2}{[I_2][H_2]} = \frac{(2x/1)^2}{((2-x)/1) \cdot ((4-x)/1)} = 52,78$$

Bi emaitzak 4,62 eta 1,87 dira. Lehenengoa ezinezkoa da hasieran 2 mol iodo bakarrik dagoelako.

$$\text{Dagoen HI ren molak } 2x = 2 \cdot 1,87 = 3,74 \text{ dira}$$

20. (07 Uztaila)  $\text{CO}_2(\text{g}) + \text{H}_2(\text{g}) \rightleftharpoons \text{CO}(\text{g}) + \text{H}_2\text{O}(\text{g})$  erreakziorako oreka-konstantea 4,2 da 1600°C-tara. Hasteko, 0,8 mol  $\text{H}_2$  eta 0,8 mol  $\text{CO}_2$  sartzen dira 10 L-ko ontzi batean.

- Substantzia bakoitzaren kontzentrazioa orekan kalkula ezazu
- Zein izango da  $K_p$ -ren balioa tenperatura berean?



	$\text{H}_2(\text{g})$	$\text{CO}_2(\text{g})$	$\text{H}_2\text{O}(\text{g})$	$\text{CO}(\text{g})$
Hasierako molak	0,8	0,8	0	0
Erreakzionatzen duten molak	-x	-x		
Eratzen diren molak			x	x
Orekako molak	0,8-x	0,8-x	x	x
Orekako kontzentrazioak	0,8-x / 10	0,8-x / 10	x / 10	x / 10

Datuak ordezkatzuz oreka-konstantean,

$$K_c = \frac{[x/10][x/10]}{[(0,8-x)/10][(0,8-x)/10]} = 4,2 \Rightarrow \sqrt{\frac{(x/10)^2}{((0,8-x)/10)^2}} = \sqrt{4,2} \Rightarrow \frac{x}{0,8-x} = \sqrt{4,2} \Rightarrow x = 0,54$$

$$[\text{H}_2] = [\text{CO}_2] = 0,8-x / 10 = 0,026 \text{ M}$$

$$[\text{H}_2\text{O}] = [\text{CO}] = x / 10 = 0,054 \text{ M}$$

$$K_p = K_c (RT)^{\Delta n} \quad \text{Mol-kopuru aldaketarik ez dago, } \Delta n = 0. \text{ Beraz, } K_p = K_c = 4,2$$

21. (08 Ekaina) Tenperatura batean  $\text{N}_2(\text{g}) + 3 \text{H}_2(\text{g}) \rightleftharpoons 2 \text{NH}_3(\text{g})$  orekarako  $K_c$ -ak 783 balio du. tenperatura berean (arrazoitu erantzunak):

- Kalkulatu  $K_c$   $2 \text{NH}_3 \rightleftharpoons \text{N}_2(\text{g}) + 3 \text{H}_2(\text{g})$  orekarako
- Kalkulatu  $K_c$   $(1/2) \text{N}_2(\text{g}) + (3/2) \text{H}_2(\text{g}) \rightleftharpoons \text{NH}_3(\text{g})$
- Azaldu aurreko oreketan zer gertatuko den, presioa bat-batean handituz gero.
- Azaldu aurreko oreketan zer gertatuko den, katalizatzaile bat gehituz gero

a) Goiko erreakzioaren  $K_c$  honako hau da,  $K_c = \frac{[\text{NH}_3]^2}{[\text{H}_2]^3 [\text{N}_2]} = 783$

Proposatzen den erreakzioaren  $K_{c1} = \frac{[\text{H}_2]^3 [\text{N}_2]}{[\text{NH}_3]^2}$  eta aurrekoaren alderantzizkoa da.

Beraz,  $K_{c1} = 1 / K_c = 1 / 783 = 1,28 \cdot 10^{-3}$

b) Oraingo erreakzioaren  $K_{c2} = \frac{[\text{NH}_3]}{[\text{H}_2]^{3/2} [\text{N}_2]^{1/2}}$  eta hau goikoaren erro karratua da.

Hortaz,  $K_{c2} = \sqrt{K_c} = \sqrt{783} = 27,98$

- c) Goiko orekan presioa handitzen bada bolumena txikutuko da eta orekak joko du gasen mol kopurua gutxitzen den alderantz, eskuinerantz hain zuzen ere, amoniako ekoiztuz. Eskumako aldean bi mol daude eta ezkerrean lau. Hirugarren orekan gauza bera eta bigarrean alderantziz.
- d) Katalizatzaile bat gehituz gero oreka ez da aldatuko; erreakzioaren abiadura, ordea bai.

22. (08 Uztaila) Zenbat gramo  $H_2$  (g) gehitu behar zaio dira 2 mol  $I_2$  (g)-ri iodoaren %80ak erreakziona dezan, hidrogeno ioduro lortzen delarik  $450^\circ C$ -ko temperaturan?

**Datua:**  $K_c=50$

Erreakzioa,  $H_2(g) + I_2(g) \rightleftharpoons 2 HI(g)$  eta oreka-konstantea  $K_c = \frac{[HI]^2}{[H_2][I_2]}$

	Hidrogenoa	Iodoa	Hidrogeno ioduroa
Hasierako molak	N	2	0
Erreakzionatzen duten molak	-x	-x	
Eratzten diren molak			2x
Orekako molak	N-x	2-x	2x
Orekako kontzentrazioak	N-x / V	2-x / V	2x / V

Ionizazio-maila %80 da.  $\alpha = x / 2 \rightarrow 0,8 = x / 2 \rightarrow x = 1,6 \text{ mol}$

Datu hori ordezkatzeko dugu taulan eta gero oreka-konstantean,

$$K_c = \frac{[HI]^2}{[H_2][I_2]} \Rightarrow 50 = \frac{\left(\frac{3,2}{V}\right)^2}{\left(\frac{N-1,6}{V}\right)\left(\frac{2-1,6}{V}\right)} = \frac{3,2^2}{(N-1,6) \cdot 0,4}$$

eta N askatuz,  $N = 2,112 \text{ mol hidrogeno}$

eta gramo kopurua,  $2,112 \text{ mol } H_2 (2 \text{ g} / 1 \text{ mol}) = 4,224 \text{ g } H_2$

23. (09 Ekaina) 2,0 L-ko ontzi batean 2 mol hidrogeno eta 2 mol iodo sartzen dira, berotzen da  $760^\circ C$  arte, eta hidrogenoaren, iodoaren eta hidrogeno ioduroaren artean oreka lortzen da, hirurak gasak izanda. Temperatura horretan  $K_c=45,9$  da. Kalkula ezazu, arrazoituz, hauek:

- Hiru gasen mol kopurua oreka lortzen denean.
- Bolumena eta temperatura konstanteak mantentzen badira eta hahastea orekan dagoenean beste 0,4 mol hidrogeno gehiago matrazean sartzen badira. Azal ezazu zer gertatuko den, eta kalkulatu zein izango den nahasketaren konposizioa oreka berriro lortzen denean.

Erreakzioa,  $\text{H}_2(\text{g}) + \text{I}_2(\text{g}) \rightleftharpoons 2 \text{HI}(\text{g})$  eta oreka-konstantea,  $K_c = \frac{[\text{HI}]^2}{[\text{H}_2][\text{I}_2]}$

	Hidrogenoa	Iodoa	Hidrogeno ioduroa
Hasierako molak	2	2	0
Erreakzionatzen duten molak	-x	-x	
Eratzen diren molak			2x
Orekako molak	2-x	2-x	2x
Orekako kontzentrazioak	2-x / 2	2-x / 2	2x / 2

$$\text{Oreka-konstantean datuak ordezkaturaz, } 45,9 = \frac{\left[\frac{2x}{2}\right]^2}{\left[\frac{2-x}{2}\right]\left[\frac{2-x}{2}\right]} = \frac{(2x)^2}{(2-x) \cdot (2-x)}$$

Metodorik sinpleena erro karratua ateratzea alde bietan eta lehenengo mailako ekuazioa ebatzi,

$$X = 1,55 \text{ mol}$$

Orekako konposizioa:  $\text{H}_2(\text{g})$  eta  $\text{I}_2(\text{g})$   $2 - 1,55 = 0,45$  mol;  $\text{HI}(\text{g})$   $2 \cdot 1,55 = 3,10$  mol

b) Hidrogeno gehiago sartuz gero oreka apurtu egiten da eta berriro orekatzeko Le Chatelier-en printzipioaren arabera sistemak eskuin alderantz joko du konpentsatzeko. Goian egindako prozesua berriro egingo dugu,

	Hidrogenoa	Iodoa	Hidrogeno ioduroa
Hasierako molak	0,45 + 0,4	0,45	3,1
Erreakzionatzen duten molak	-x	-x	
Eratzen diren molak			2x
Orekako molak	0,85-x	0,45-x	3,1 + 2x
Orekako kontzentrazioak	0,85-x / 2	0,45-x / 2	3,1+2x / 2

$$\text{Oreka-konstantean datuak ordezkaturaz, } K_c = \frac{[\text{HI}]^2}{[\text{H}_2][\text{I}_2]} \quad 45,9 = \frac{\left[\frac{3,1+2x}{2}\right]^2}{\left[\frac{0,85-x}{2}\right]\left[\frac{0,45-x}{2}\right]}$$

Kasu honetan bigarren mailako ekuazioa ebatzi behar da. Bi emaitza daude: 0,12 eta 1,6. Azkena ezinezkoa da erreaktiboen hasierako kantitateak baino handiagoa delako.

Orekako konposizioa:  $\text{H}_2(\text{g})$   $0,85 - 0,12 = 0,73$  mol ;  $\text{I}_2(\text{g})$   $0,45 - 0,12 = 0,33$  mol;  
 $\text{HI}(\text{g})$   $3,1 + 2 \cdot 0,12 = 3,34$  mol

24. (09 Uztaila) Hauxe da amoniakoaren sintesirako Haber-Bosch industria-prozedura:



400 K-ean dagoen bi litroko ontzi batean, 0,80 mol amoniako, 0,40 mol nitrogenu eta 0,50 mol hidrogeno orekan daude, denak gas egoeran. Kalkulatu eta arrazoitu zein den erreakzioaren  $K_c$  oreka-konstantea 400 K-ean

a) Erreakzioa,  $\text{N}_2(\text{g}) + 3 \text{H}_2(\text{g}) \rightleftharpoons 2 \text{NH}_3(\text{g})$  eta oreka-konstantea  $K_c = \frac{[\text{NH}_3]^2}{[\text{N}_2][\text{H}_2]^3}$

Oreako kontzentrazioak,  $[\text{N}_2] = 0,40 \text{ mol} / 2 \text{ L} = 0,20 \text{ M}$

$[\text{H}_2] = 0,50 \text{ mol} / 2 \text{ L} = 0,25 \text{ M}$


$[\text{NH}_3] = 0,80 \text{ mol} / 2 \text{ L} = 0,40 \text{ M}$

Eta konstantean ordezkatzuz,  $K_c = \frac{0,40^2}{0,20 \cdot 0,25^3} = 51,2 \text{ (mol/L)}^{-2}$

b) Amoniakoa piramidal triangeluarra da. Nitrogenoak dauzka bi elektroi ez-lotzaile eta beste hiru H atomoekin elkartzeko. H-N loturak polarrak dira bi atomoen elektronegativitateak desberdinak direlako, N elektronegatiagoa da. Egitura geometrikoa aztertu eta gero molekula osoa polarra da eta horri esker disolbatuko da uretan, disolbatzaile polarra delako.



25. (10 Ekaina) 700 K-ean,  $\text{CO}_2(\text{g}) + \text{H}_2(\text{g}) \rightleftharpoons \text{CO}(\text{g}) + \text{H}_2\text{O}(\text{g})$  erreakzioaren oreka-konstantea 0,15 da. Zein da substantzia bakoitzaren oreka-presioa, baldin eta 50 L-ko matrize batean 0,50 mol  $\text{CO}_2$  eta 0,50 mol  $\text{H}_2$  sartzen badira eta 700K-era berotzen bada?



	$\text{CO}_2$	$\text{H}_2$	$\text{CO}$	$\text{H}_2\text{O}$
Hasierako molak	0,5	0,5	0	0
Orekarako molak	-x	-x	----- --	-----
	-----	-----	x	x
Oreako molak	0,5-x	0,5-x	x	x
Oreako kontzentrazioak	(0,5-x)/50	(0,5-x)/50	x/50	x/50

Konstantean datuak ordezkatur,

$$K_c = \frac{[CO][H_2O]}{[CO_2][H_2]} = \frac{(x/50)(x/50)}{((0,5-x)/50)((0,5-x)/50)} = \frac{x^2}{(0,5-x)^2} \Rightarrow \sqrt{1,5} = \frac{x}{0,5-x} \Rightarrow x = 0,14$$

Presio totala kalkulatu dugu, gas idealen ekuazioa erabiliz,  $PV = nRT$

Mol-kopuru totala,  $0,5-x + 0,5-x + x + x = 1 \text{ mol}$

$$P \cdot 50 \text{ L} = 1 \text{ mol} \cdot 0,082 \text{ L} \cdot \text{atm} \cdot \text{K}^{-1} \cdot \text{mol}^{-1} \cdot 700 \text{ K} \rightarrow P = 1,148 \text{ atm}$$

Presio partziala = frakzio molarra · Presio totala =  $X_i P_t$

$$\text{CO eta ura} \rightarrow P = (0,14/1) \cdot 1,148 \text{ atm} = 0,16 \text{ atm}$$

$$\text{CO}_2 \text{ eta H}_2 \rightarrow P = (0,5-0,14/1) \cdot 1,148 \text{ atm} = 0,41 \text{ atm}$$

\*Beste bide bat. Hasierako presioak gas idealen ekuazioa erabiliz,  $PV = nRT$


$$P \cdot 50 \text{ L} = 0,5 \text{ mol} \cdot 0,082 \text{ L} \cdot \text{atm} \cdot \text{K}^{-1} \cdot \text{mol}^{-1} \cdot 700 \text{ K} \rightarrow P = 0,574 \text{ atm}$$

